



Etorkizuna gibelean da



XIMUN FUCHS
ANTZERKILARIA

Maiatzean Korsikan egon nintzen topaketa batean, hezkuntza artistikoa eta hizkuntzen irakas-kuntza aipagai, gure antzerki taldean hezkuntza eta antzerkia anai-arreba bi-kiak baitira ekinean. Ikastaroan, luzaz mintzatu ginen linguista batekin, etor-kinei frantsesa eta ingelesa irakasten dabilena. Irakasle eta ikertzaileak argiki azaldu zigun hezkuntzan, programa bat sartua dagoen unetik, irakaskuntzak po-rrrot egiten duela. “Nola pentsa dezakegu ikasle guztiek une berean eta molde be-rean kontzeptuak eta zaletasuna garatu ditzaketela? Denok dakigu sistema hau ez dela egokia, aspaldian aztertua eta frogatua izan da hori, ikasleak tontotu besterik ez ditugu egiten. Horrela segi-tzen dugu makroekonomiaren logikak hala dioelako, haurrak okupatzeko gu-rasoek lan egiten duten bitartean, eta batez ere ikasleak beraien kabuz pentsa-tzen ez hasteko”.

Emakume hori, intuizioz, ikasgela-ko mahaiak kentzen hasi zen, antzerki maskarak erabiltzeko eta koreografo batekin lan egin ahal izateko frantses eta ingeles klaseetan. Eraldaketa txiki ho-rrek bere irizpideak errotik irauli ditu. Hala nola, egun batez, ikastaro baten amaieran ikasle txinatar bat hurbildu zitzaion doi bat lotsaturik eta erran zion: “Andere, oker zbiltza. Etorkizuna ez da aurrean, atzean da, gibelean. Aurrean dagoena ikusten dugu, ezagutzen dugu, beraz, aurrean dagoena iragana da. Etor-kizuna gibelean da, erabat ezezaguna

Nire hizkuntza gorputzez
ikasi dut, hizkuntza
gorputzez ikasten
delako, ez gogoz.
Emozio eta gorputzez
osaturiko zeinu sare bat
da nire hizkuntza

zaigu, ez baitugu ikusten”. Noski.

Arau sozialak eta intimoa estuki lo-tuak dira. Gorputzak, pentsamenduak oraindik ulertu ez dituen gauzak dakiz-ki. Nire gorputza nire etxea da. Bizitzan zeharkatu dudaren arrasto guztiak daramatza, orbainen moldean. Nire hizkuntza gorputzez ikasi dut, hizkun-tza gorputzez ikasten delako, ez gogoz. Emozio eta gorputzez osaturiko zeinu sare bat da nire hizkuntza, agerikoa eta aldi berean ikusezina. Hizkuntza honen ahotsa emozioen ur-jauzi bat da. Hitzal-di orotan, urrundik heldu zaidan kantu bat entzuten hasten naiz: isildutakoaren xuxurla.

Zaila da ohartzea hizkuntzaren baitan dagoen botereaz. Hitz egitea mendera-tzea da. Hizkuntza ez da erreakzionarioa edo aurrerakoia. Mintzo da eta mintza-tzera behartzen du. Orduan, hitz egitea ez da komunikatzea. Ez da trukatzea. Ez da adieraztea. Izendatzea. Itzaletik argi-taratzea. Hitz egitea lehenik ahoa ireki

eta mundua erasotzea da, ausikitzen ja-kitea da, gure zauri ezkutuak babesteko modu bat da.

“Nire arraza mendekatzeko idazten dut”, zioen Annie Ernaux idazleak. Hitza ez da iruzkin bat. Ez da errearen ispilu bat edo munduaren txanpona hitzetan, baizik eta gure barne mundutik neke handiz erditu den zerbait. Mintzoak gur-pil zoroa hautsi lezake; mundua bera irauli. Hala ez balitz, azkenean, ezdeu-sak bilakatuko ginatke: pantailetako irudiek heziak, gauzakien trukean zozo-tuak, munduaren jale eta zonbi erratuak, bizirik iraun lezakeen zerbaiten eske. Ez dezagun ahaztu: istorioaren amaieran ez dago hitzik gehiago. Isiltasun luze bat, besterik ez.

Antropologian, ohikoa da erraitea is-torio bakoitzarekin bat, kontra-historia kopuru handi bat datorrela, ezinbes-tean, eta horietako bakoitza beste guz-tien osagarria dela. Baina gure gizartea monokultura eta elebakarrera lerratu denez (kazetariak, artistak, intelektua-lak edo boteredunak predikuan hauspo-tuz), gure hausnarketa ohiturak plater konbinatu monokromoak bilakatu dira. Zerbait ahaztu zaigu bidean: garrantzi-tsuena ez da zer eman diguten jateko, pentsatzeko zer eman diguten baizik.

Etorkizuna gibelean dugu, senideak alboan eta iragana begi-bistan. Hortik hasiko gara gure kontra-historia eraiki-tzen, pertsona ala komunitate gisa ko-katzen, eta gure hizkuntza gorputzez eta emozioz hornitzen. Antzerkia. ●